

• **Futbola****Elkarrizketa:**

Julio Salinas: «Igande honetan Alavesekin debutatzeko irrikan nago» → 25

• **Atletismoa****Uliako Krosa:**

Daniel Gachara kenyarra izan zen atzo irabazle gizonaen proban → 27

Tau Baskonia ♦ Gasteizko taldeak Maccabi hartuko du gaur etxean, Euroligako bigarren faseko lehen partiduan

Ondo hastea, ezinbestekoa

Scariolok «azken izerdi tanta isuri arteko ahalegina» eskatu die jokalariei


Erredakzioa / Gasteiz

TAU BASKONIAK gaur gauean ekingo dio Euroligako bigarren faseari, Araba pabilioian (20:30, ETB1). Aurkari, Europako saskibaloian izena baino pisu handiagoa duen talde bat izango du, Tel Aviveko Maccabi.

Norgehiagokak garrantzi berezia du, bi taldeek F multzo berriko hirugarren eta laugarren postuak betetzen baitituzte; Tauk hirugarrena, Panathinaikos eta Efes Pilsenen atzetik, eta Maccabik laugarrena. Tauk bost irabazi eta beste hainbeste galdu ditu orain arteko hamar partiduetan. Maccabik, berriz, bat gutxiago irabazi eta bat gehiago galdu. Beraz, Maccabiri irabaztea aurrerapauso handia litzateke bigarren ligatxoaren amaieran jokatu diren *play off*-etan sartzeko. Lehen bi txartelak zehaztuak daude, baina beste biak nahikoa airean, eta, beraz, gaur irabaztea garrantzitsua da oso txartel horietako bat Gasteiz aldera ekartzeko.

Israelgo taldeak ez sinesteko moduko palmaresa du, 38 Liga, 28 Kopa eta Europan ere hainbat txapelketa baititu irabaziak. Azken urteetan, hala ere, emaitza kaskarrekin apaldu egin dute bere sona, nahiz eta denboraldi honetan ohi duen jokoa berreskuratzen ari direla dirudien.

Plantila ere palmaresaren parekoa du Maccabik. Hiru dira taldeko izarrak: Katash—Europako joko zuzentzailearik onena, Scarioloren arabera—, Alexander eta Sheffer erasotzaileak. Scariolok «talde konpletua eta aulki oparokoa» definitu du Maccabi. Beraz, Baskoniako entrenatzaileak pistan «azken izerdi tanta isurtzeko



Sanders eta Scariolo, herenegungo entrenamenduan. Gaur jokatuko du Sandersek.

Euroligako F Multzoa

Taldea	Jokatu	Irabazi	Galdu	Puntuak
1. Panathinaikos	10	10	0	20
2. Efes Pilsen	10	7	2	17
3. Tau Baskonia	10	5	5	15
4. Maccabi	10	4	6	14
5. Varese	10	4	6	14
6. Saratov	10	2	8	12

premia» azpimarratu zuen atzoko entrenamenduaren ondoren: «Kontzentrazio handiz jokatu beharko dugu, eta defentsako errebotean

genuen sendotasuna berreskuratuko. Ez dago ezinezko emaitzarik, taldeak egoerak eskatzen duen neurria ematen badu».

Taun Zwickler ez da ariko, baina ordainean J.D. Sanders fitxaketa berriak jokatuko du. Estatu batuarrak ez da oraindik guztiz egokitu taldera eta Gasteizera —bi egun besterik ez dira entrenatzen ari dela—, baina Baskoniako jokalariek eskasiak haren debuta aurreratu du. Scariolok jakinarazi zuenez, minutu batzuetan behintzat jokatuko du.

Dabid Doblak juniorrak ere leku bat izango du Tau Baskoniaren aulkian, barruko jokalarien eskasia dela eta.

Serge Zwickler Italiako Bolifia taldera bidean

Serge Zwickler pibot holandarra Italian da egunotan Gorizia taldearekin negoziatzen. Tau Baskoniako iturriek jakinarazi dutenez, bi taldeak ados jarri dira jada. Zwickler joateak ez du derrigorrez beste pibot bat fitxatzea ekarriko, informazio iturri berek azaldutakoaren arabera.

Egutegi zaila du Tau Baskoniak F Multzoan

Tau Baskoniak ez du bate-re egutegi samurra izango F Multzoan. Etxean hasiko da, Araba pabilioian, Maccabiren aurka. Gaur zortzi, urtarrilaren 14an, Efes Pilsenen aurka jokatuko du Turkian, eta hilaren 21ean etxean ostera Panathinaikosen aurka. Ondorengo hiru partiduetatik bi kanpoan jokatuko beharko dituzte gasteiztarrek. Otsailaren 4an Maccabiren aurka eta azken jardunaldian Panathinaikosen kontra. Bi neurketa horien artean Efes Pilsenen bisita jasoko du Tauk.

Garbajosari asteartean edo asteazkenean egingo diote ebakuntza

Jorge Garbajosa Baskoniako pibotari datorren astearte edo asteazkenean egingo diote ebakuntza oin zolan duen artritis dela eta. Madrildarrak bi hilabete eduki beharko du eskuin hanka geldia, eta beste bi beharko ditu guztiz osatzeko.